

RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK


ELIKAGAIAK

2018ko HIRUGARREN LAUHILEKOA

Jakinarazpenen kategorizazioa
Jakinarazpenen jatorria
Kutsadura iturrien sailkapena
Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak
Etiketetan adierazi gabeko alergenak


JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2018ko hirugarren lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko 1062 jakinarazpen izan dira. Horietatik 358 alertak izan dira (%33,5), 356 informazio-jakinazpenak (%33,5) eta 348 mugan egin diren ukapenak (%33).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **35a Turkiakoak** dira eta jarraian **Txina** dugu: kasuen % **20a**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituen herrialdea **Polonia** izan da, % **12,5**arekin eta bigarren **Espania** % **11,5**arekin. **Afrikaren** kasuan, **ez da herrialderik nabarmentzen**. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **EEBB** dira jakinarazpen gehien sortu dituztenak, %**33,5a**, eta jarraian **Argentina**, % **32,5**.

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2018ko 3. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1062 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturriak	%
Kutsadura biologikoa	%27
Iruzurrak	%20
Mikotoxinak/biotoxinak	%18
Hondakinak	%10
Kutsadura kimikoa	%9,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	%5,5
Metal astunak	%5
Kutsadura fisikoa	%5



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % **77,5**an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % **47,5a** eragin du. Kasu gehienetan (% **55a**) kakahuetea **Argentina**atik zetorren.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **salmonelek** kutsaduren % **54,5a** eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen % **82**an. **Sesamoa** izan da produktu protagonista % **31**eko kasuetan, %**2,5**ko kasuetan **Afrika** jatorria zelarrik. Beste salmonelei dagokienez, % **7,5a** **Salmonella enteritidis**i dagokio (oilaskoak eragin ditu kasuen % 75a eta %89ko kasuetan Polonia izan da jatorria) eta %**10,5a** **Salmonella typhimurium**i (eskorta - hegaztiak eragin dituzte kasuen % 87,5a, eta %100ean Europa izan da jatorria).

Bestalde, **Listeria** dugu bigarren kutsatzaile nagusia: kasuen % **18a**. Inplikaturako produktuei dagokienez: **izokin-ketua** (% **29,5a**). **Listeriak** eragindako jakinarazpen %**100**ek **europa** jatorria zuten.

Hondakinei dagokionez, **pestizidak** %**82a** dira eta medikamentuak %**12a**. Pestiziden kasuan, **barazkiak** inplikatuak daude kasuen %**48**an eta %**56a** **turkian** zuen jatorria.

Metal astunei buruz esan behar da **merkurioak** eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, % **61,5a**. Ezpata-arraina protagonista izan da %**72**eko kasuetan eta jatorria **Espainia** %**91**ean.

ITURRIA	ZK	AGENTEA	ZK(%)	PRODUKTU ERAGILEA	ZK(%)	JATORRIA	ZK(%)
Mikotoxinak/Biotoxinak	193	Aflatoxinak	150 (77,5%)	kakahueteak	71(47,5%)	Argentina	39 (55%)
Kutsadura biologikoa	288	Salmonella sp.	157 (54,5%)				
		<i>Salmonella sp.</i>	129 (82%)	sesamoa	40 (31%)	Afrika	29 (72,5%)
		<i>S.enteritidis</i>	12 (7,5%)	oilaskoa	9 (75%)	Polonia	8 (89%)
		<i>S.typhimurium</i>	16 (10,5%)	eskorta-hegaztiak	14 (87,5%)	Europa	14 (100%)
		Listeria	52 (18%)	izokin ketua	15 (29,5%)	Polonia	5 (33,5%)
Metal astunak	52	Merkurioa	32 (61,5%)	ezpata-arraina	23 (72%)	Espainia	21 (91%)
Hondakinak	106	Pestizidak	87 (82%)	barazkiak	41 (48%)	Turkia	23 (56%)
		Botikak	19 (18%)	ez da produkturik nabarmentzen			

ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOAK

Jakinarazitako iruzurren kasuetatik %37a (77 kasu), hau da kasuen ia erdia, **etiketan alergenok ez dituztelako adierazi** izan dira.

ELIKAGAIA	Nº (%)	JATORRIA	Nº (%)
Plater prestatuak	24 (31%)	Europa	20 (83%)
Konfitegintza, gozogintza eta pastelgintza produktuak	22 (28,5%)	Europa	20 (91%)
Saltsak eta sopak	10 (13%)	Europa	9 (90%)
Gosegarria (patata frijituak, gaileta gazituak,...)	10 (13%)	Europa	8 (80%)
Bestelako elikagaiak	11 (14,5%)	Europa	17 (74%)